



ESKOLA PUBLIKOAN

DEBAGOIENeko 1.JAIA
URRIAK 20
Eskoriatza

DEBAGOIENeko 1.ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoak, Jai egun berezi bat antolatuko du Urriaren 20an Eskoriatzan "HEZI eta HAZI ESKOLA PUBLIKOAN" lemapean.

Debagoieneko hezkuntza publikoaren eskola komunitatea osatzen dugun irakasle, ikasle eta gurasuok, Arrasate, Aretxabaleta, Antzuola, Elgeta, Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko eskola publikoari, babesa eta aitortza emateaz gain, eskola publikoa indartu eta bultzatu behar dela aldarrikatu nahi dugu Jai honetan.

Hezkuntza publiko euskalduna lehenestea da gure erronka nagusia. Oinarri demokratikoak abiapuntu izanik, guztion artean eta guztion zerbitzura dagoena.

Gure bailarako herri eta auzoetan eraldaketa nabarmenak gertatzen ari dira azken urte hauetan: familia ereduak, jatorri ezberdineko biztanleria, kultur aniztasuna e.a. Egoera konplexua da dudarik gabe eta kontutuan izanik gizartean gertatzen diren aldaketa guztiak eskolan isladatzen direla, ezinbestekoa da egoera berri honen aurrean Eskola Publikoaren erantzun egokia.

Aniztasunaren diskurso positiboa eraikitzearen alde gaude, ekitatean eta inklusibitatean oinarritzen den Hezkuntza Sistema Publikoa nahi dugulako.

Aniztasuna ez da arazoa, aniztasunari bizkarra ematea da arazoa.

Guk, gizarte orekatu, justu eta kohesionatu batean HEZI eta HAZI nahi ditugu gure seme alabak.

Gaur bereziki, Debagoieinoko jendartea gonbidatu nahi dugu Urriaren 20an gurekin bat eginik, Debagoieneko Eskola Publikoaren alde Jai honetan parte hartzera.